


ezagutzen al  
duzu Donostia?

## Landarbasoko trikuharriak

Agian, Landarbasoko barrendegian izango dira Gipuzkoa osoko trikuharri gehien hain barruti txikian. Guztira zazpi dira Landarbasoko mendi-hegian katalogaturik dauden historiaurreko hilobiak. Hauei Igoingo lepoan dauden beste bi trikuharri gehitu behar zaizkie. Landarbasoko trikuharriak batetik zazpira zenbakituak daude. Monumentu megalitiko hauek garai batean amezti ederra zen toki batean lekutzen dira, gaur egun ote eta larrez itsusiturik dagoen inguru batean. Arrazoi honegatik, ezin da igerri ere egin trikuharri hauekatzeko batzuk hor daudenik, sasi artean, ez baitira ikusten. Badirudi, beren kokapenagatik, Landarbasoko kobazuloetako biztan-



Landarbaso 1 trikuharria.

leen hilobiak izan zirela. Trikuharri guztiak kobazuloetatik gertu daude, mendebaldera.

Trikuharri hauek bertikalki kokatutako hiru harri-losaz osaturik daude, lauki bat osatuz; gainean taparik gabe, aintzinean laugarren harri

zabal bat izan bazuten ere, estalki moduan jarria. Hildakoak barruan lurperatu ohi zituzten gure arbaso zaharrek, eguzkia irtetzen den alderantz begira, horregatik trikuharriak ekialdera orientatuak egoten dira beti. Urumea inguruko baserri-

tar eta artzainek monumentu hauek «jentilarriak», «dolmenarriak», «jentil-zuluak», «juru (judu)-maiak», «kanposantu zarrak» edo «jentilkanposantuak» deitzen dituzte.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE



Familiako eta lagunarteko ospakizunetan (urrezko eztaiak, urteurrenak...) eta ezbeharretan (heriotzak) esker onak eta doluminak azaltzeko lekua eskaintzen dizu IRUTXULO